

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

579

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Berariazko Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko, Gaitasuna Ebaluatu eta Egiatzatzeko Egituraren bitartez egingo diren probetarako lanbide-arloak eta heziketa-zikloak zehazten dituen.

70/2004 Dekretuak, apirilaren 27koak, Berariazko Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen ditu, eta bere 7. artikuluan, lanbide-gaitasuna ebaluatzeko prozedura malgu eta pertsonalizatu bat ezartzen du, Gaitasuna Ebaluatu eta Egiatzatzeko Egituraren bidezko probak izenekoa, pertsona helduei erraztearren euren lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formalak kapitalizatzeko aukera, Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak osatzen dituzten moduluak gainditze aldera, eta baita horiei lotutako lanbide-gaitasuna aitortzeko ere.

Abenduaren 20ko 419/2005 Dekretuak, apirilaren 27ko 70/2004 Dekretua -Berariazko Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen dituen- aldatu, eta bere xedapen gehigarrian xedatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari eskumena ematen zaiola agindu bidez egokitu dezan I. eranskina, Gaitasuna Ebaluatu eta Egiatzatzeko Egituraren bitartez egingo diren probetarako lanbide-arloak eta heziketa-zikloak zehazten dituen, alegia.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

Bakarra.— Agindu honen I. eranskinean ageri dira Gaitasuna Ebaluatu eta Egiatzatzeko Egituraren proben modalitatearen bitartez egiaztatuko diren lanbide-arloak eta heziketa-zikloak. Apirilaren 27ko 70/2004 Dekretuaren 7. artikulua ezarri du modalitate hori.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek EHAA-n argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 9a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

579

ORDEN de 9 de enero de 2009, del Consejero de Educación Universidades e Investigación, por la que se determinan las Familias Profesionales y Ciclos Formativos en los que se llevarán a cabo pruebas, para la obtención de los Títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica, a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia.

El Decreto 70/2004, de 27 de abril, por el que se regulan las pruebas para la obtención de los Títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica establece, en su artículo 7, un procedimiento personalizado y flexible de evaluación de la competencia profesional, denominado pruebas a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia, a fin de posibilitar a las personas adultas la capitalización de la experiencia laboral y los aprendizajes no formales a efectos de superar los módulos que conforman los títulos de Técnico y Técnico Superior, así como de reconocer la competencia profesional asociada a los mismos.

El Decreto 419/2005 de 20 de diciembre por el que se modifica el Decreto 70/2004, de 27 de abril, por el que se regulan las pruebas para la obtención de los Títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica, establece, en su disposición adicional, que mediante Orden del Consejero de Educación Universidades e Investigación se adecuará el anexo I por el que se determinan las Familias Profesionales y Ciclos Formativos objeto de realización de pruebas a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia.

En su virtud

DISPONGO:

Único.— Las Familias Profesionales y Ciclos Formativos que serán objeto de reconocimiento por la modalidad de pruebas a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia, establecida en el artículo 7 del Decreto 70/2004, de 27 de abril, son los que se relacionan en el anexo I de esta Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de enero 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA

LANBIDE-ARLOAK ETA HEZIKETA-ZIKLOAK

| Lanbide-arloa | Heziketa-zikloa |
|--|---|
| Fabrikazio mekanikoa | Mekanizazioa Mekanizazio bidezko Produkzioa Soldadura eta Galdaragintza |
| Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentzea | Karrozeria Ibilgailuen Elektromekanika |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza Jatetxe Arloa |
| Elektrizitatea eta Elektronika | Tresneria eta Instalazio Elektroteknikoak Telekomunikazio- eta Informatika-sistemak Erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoak |
| Produkzioko Mantentze eta Zerbitzuak | Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantentze Elektromekanikoa Hotz-, girotze- eta bero-instalazioak jarri eta mantentzea |
| Eraikuntza eta Obra Zibilak | Obrak eta Planak Gauzatzea |
| Administrazioa | Administrazioa eta Finantzak |
| Komunikazioa, Irudia eta Soinua | Irudia Ikus-entzunezkoen, iratiaren eta ikuskizunen produkzioa Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa Soinua |
| Informatika | Informatika-sistemen administrazioa |
| Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-kudeaketa eta Marketina |

ANEXO I

FAMILIAS PROFESIONALES Y CICLOS FORMATIVOS

| <i>Familia profesional</i> | <i>Ciclo formativo</i> |
|---|---|
| <i>Fabricación Mecánica</i> | <i>Mecanizado Producción por Mecanizado Soldadura y Calderería</i> |
| <i>Mantenimiento de Vehículos Autopropulsados</i> | <i>Carrocería Electromecánica de Vehículos</i> |
| <i>Hostelería y Turismo</i> | <i>Cocina Restauración</i> |
| <i>Electricidad y Electrónica</i> | <i>Equipos e Instalaciones Electrotécnicas Sistemas de Telecomunicación e Informáticos Sistemas de Regulación y Control Automáticos</i> |
| <i>Mantenimiento y Servicios a la Producción</i> | <i>Instalación y Mantenimiento Electromecánico y Conducción de Líneas Montaje y Mantenimiento de Instalaciones de Frío, Climatización y Producción de Calor</i> |
| <i>Edificación y Obra Civil</i> | <i>Realización y Planes de Obra</i> |
| <i>Administración</i> | <i>Administración y Finanzas</i> |
| <i>Comunicación, Imagen y Sonido</i> | <i>Imagen Producción de Audiovisuales, Radio y Espectáculos Realización de Audiovisuales y Espectáculos Sonido</i> |
| <i>Informática</i> | <i>Administración de Sistemas Informáticos</i> |
| <i>Comercio y Marketing</i> | <i>Gestión Comercial y Marketing</i> |